

cillas deL cielo—ocúrresenos la idea de que pudiéramos olvidar ó mirar indiferentes las santas creencias religiosas de nuestros padres, su honrado idioma, sus venerandas tradiciones, sus patriarcales costumbres y sus instintos de altiva é infomable independencía..., y cuando este temor nos asalta, estremécese nuestra alma, y quisiéramos poder gritar como la anciana Cathálin:

—Euskal-erria, *¡no imites al ruiseñor de Errota-zuri!*

JUAN ITURRALDE Y SUIT.

(De la *Revista Euskara*.)

## SELGAS

### BIURSARI ARGIDOTARRAREN OROITZARI.

Zelai batean lore pollitak  
Ikusitzean apaindurikan,  
Iruditzen zait, daudela zuri  
Deiturikan.

Azalkeratu zenduelako  
Azuzenaren garbitasuna, <sup>(a)</sup>  
Orri-tarteko biolchoaren  
Umiltasuna. <sup>(b)</sup>

Suteo<sup>1</sup> biziz apaingoratzen  
Dan larrosaren edertasuna;  
Bere barruan gordetzen duen  
Lurrintasuna.

Akara<sup>2</sup> batek zabaltzen duen  
Likurta<sup>3</sup> gozo miragarriya,  
Chiliprayaren<sup>4</sup> apainduriya  
Choragarriya.

Iruditzen zait, dakustanean  
Jiraka laño altisoikiya,<sup>5</sup>  
Eotzen ari dala zuretzat  
Jazkai churiya, <sup>(c)</sup>

Eguzkiyaren errañuakin  
Miragarriro distiatua;  
Suteoz, urrez eta larrosaz  
Goloreztua.<sup>6</sup>

Zarika triste baten adarrak  
Lurreraturik begiratzean,  
Eta nekosta<sup>7</sup> gora jaikirik  
Ikusitzean, <sup>(d)</sup>

Uste det ura dagola triste,  
Joan ziñalako lur ontatikan;  
Nekostak otoiitz eiten duela  
Zuregatikan.

(1) Púrpura.—(2) Nardo—(3) Aroma.—(4) Clavel.—(5) Nacarada.—(6) Recamado.—(7) Ciprés.

(a) Alúdese á la composicion de Selgas «Las azucenas.»  
(b) Id. id. id. «La modestia.»  
(c) Id. id. id. «La niebla»  
(d) Id. id. id. «El sauce y el ciprés.»

Iruditutzen zait, erramua  
 Begiratzean intzez bustiya,  
 Diola pozez: «Egin zazute  
 Nigaz koroia, (a)

Jartzeko nere doai guziyen  
 Kantariyari bere kopetan,  
 Ezagutu ta goitu dezaten  
 Alde danetan.»

Iruditzen zait egun-sentiyan  
 Intzturik zoya begiratzean,  
 Duela diz-diz egiten zutzaz  
 Oroitutzean.

Orri-tartean sartaizechoa<sup>1</sup>  
 Surmur egiñaz dabillenean,  
 Uste det zugan pentsaturikan,  
 Lore-gañean. (b)

Malko-tanto bat iñuririkan,  
 Doaikerdezko<sup>2</sup> sinisgarritzat,  
 Zizpurucho bat dizula ematen  
 Doneskañitzat.<sup>3</sup>

Micheleta bat larros-artean  
 Dabillenean jira ta bira,  
 Iruditzen zait poztutzen dala  
 Zuri begira.

Iruditzen zait pozez betetzen  
 Dala Zeruan ikusitzean,  
 Egoitz<sup>4</sup> ayetan koroaturik  
 Begiratzean,

Bere bizitza, miragarritzko  
 Biursaldiyan kanta zuena;  
*Micheletaren izantza zer dan*  
 Esan zuena. (c)

Baso-charetan aditutzean  
 Nola kantatzen duten choriyak,  
 Uste det zutzat dirala beren  
 kanta poztiyak.

Uste det, Selgas, errechiñolak  
 Ordaindu nairik zure kantuak,  
 Dizkitzula pin eskeintzen bere  
 Chiruliruak. (d)

Uste det, ere, choriandraren  
 Doaindigozko<sup>5</sup> soñu eztiyak  
 Arin zugana dijoazela  
 Guzti-guztiyak. (e)

Uste det, ere, negar egiñaz  
 Dagoenean tortollochoa,  
 Zuri dizula biraltzen bere  
 Zizpuruchoa.

Gogoratutzen dalako, nola  
 Esan zenduen, zala negarra  
 Biyotz-eriyak sendatutzeko  
 Mirakindarra (f)

Iyen artean, murmur egiñaz  
 Ibai urdiña dijoanean,  
 Iruditzen zait gozo diola  
 Pasatutzean:

(1) Cefirillo.—(2) Gratiud.—(3) Ofrenda.—(4) Mansion.—(5) Alabanza.

(a) Alúdese á la composicion de Selgas «El laurel»

(b) id. id. id. «El céfiro y una flor.»

(c) id. id. id. «Lo que son las mariposas.»

(d) id. id. id. «El ruseñor.

(e) id. id. id. «La alondra.»

(f) id. id. id. «El llanto.»

«¡Selgas argiya! ¿non arkiko det  
Zu bezelako kantatzallerik?  
¿Non arkiko det nere doaiyen  
Azaltzallerik?»

Danak: loreak beren usaiya,  
Choriyak beren chorrochioak  
Beren murmurak ibaiyak eta  
Iturrichoak;

Bere surmurrak sartaizechoak,  
Zuaitzak beren mardultasuna,  
Eta lañoak apaintzen duen  
Churitasuna;

Zuri dizute, Selgas, eskeintzen,  
Agertu nairik doaikerdea:  
Zuri dizute biraltzen beren  
Oroitiz maitea

Baña ¿zér dira ¡zér! zuretzako,  
Lore-guztiyen lurrintasunak?  
¿Zér dira chori t'egazti danen  
Kantu bigunak?

¿Zuaitz ederren guritasuna,  
Sartaizearen surmur eztiyak,  
Ibaiyen eta iturrichoen  
Soñu poztiyak?

¿Zer dira, Selgas, oek guztiyak,  
Baldin Zeruan aingeruchoak,  
Badizkitzute jotzen pozturik  
Arpa gozoak?

¿Baldin badaude zuri kantatzen:  
«Doatsua de, gizon ernea,  
Goitzen duena, bere lanakin,  
Errugabea?» (a)

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.



(a) Alúdese al canto «La inocencia,-La virtud,» y á otros no ménos preciosos con que Selgas enaltecíó á la inocencia.